

TXIKIAK HANDI

**Maider, Ainhoa, Izaskun
eta Aimar**

GAIAREN AURKEZPENA:


Aurkezpen honetan munduko eleaniztasunaz eta hizkuntzen kopuruaz hitz egingo dugu, batez ere, eta horren aitzakian herrira hurbildu ginen grabaketa bat egitera herritarrek euskara , hiztun kopuruari dagokionez, 0tik 10erako eskala batean non kokatzen zuten galdetzeraz. Ondoren, gelan gaiaren inguruko lanketa egiten aritu gara.



MUNDUKO ELEANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA KOPURUA

Hizkuntza aniztasunarengatik eleaniztasuna biziki hedatua dago munduan zehar.

Halere, politika kolonizatzaileek eta, ondotik, asimilatzaileek kalte handia egin diote hizkuntza aniztasunari, eta azken hori murriztuz doa.



MUNDUAN HIZTUN GEHIEN DITUZTEN HIZKUNTZAK

Ethnologue erakundearen arabera munduan 6.909 hizkuntza daude. Hiztun gehien dituen txinera omen da mila milioi hiztun baino gehiagorekin; baina badira hiztun bakarreko edo oso-oso gutxiko hizkuntzak ere.

Hona hemen urrenez urren hizkuntza gehien dituzten hizkuntzen zerrenda:

- Txinera
- Ingelesa
- Gaztelania
- Arabiera
- Hindustanera



GURE HIZKUNTZAREN KOKAPENA ETA BIZITASUNA MUNDUKO HIZKUNTZEN HARTEAN: CALVET BAROMETROA

Calvet barometroa munduko hizkuntzen bizi-indarra edo “pisua” neurtzen dituen barometro bat da. Horretarako 11 irizpide erabiltzen dira. Horietako bat hizkuntzek interneten duten presentzia. Konparazio batera, sarean 44. lekuan omen dago euskara ikerketa baten arabera. Twitter euskaraz eta beste 32 hizkuntzatan erabil daiteke; ez ordea, errumanieraz, bulgariaraz edo islandieraz (estatu-hizkuntzak izan arren!).

Calvet barometroan 563 hizkuntza sailkatu dira 11 irizpide horien baitan, eta euskara, orokorrean, 51. postuan egongo litzateke.

34	indonesien ▶	4.269
35	slovaque ▶	4.261
36	kazakh ▶	4.259
37	slovène ▶	4.223
38	tamoul ▶	4.215
39	ourdou ▶	4.208
40	thai ▶	4.127
41	estonien ▶	4.022
42	afrikaans ▶	3.962
43	swahili ▶	3.924
44	albanais Tosk ▶	3.906
45	marathi ▶	3.831
46	occitan ▶	3.829
47	lithuanien ▶	3.817
48	ukrainien ▶	3.793
49	galicien ▶	3.77
50	macédonien ▶	3.763
51	basque ▶	3.747
52	leton ▶	3.743
53	télougou ▶	3.736
54	gallois ▶	3.721
55	suisse allemand ▶	3.714
56	tibétain, central ▶	3.675
57	haoussa ▶	3.665
58	biélorusse ▶	3.65
59	malayalam ▶	3.645
60	kannada ▶	3.604
61	yoruba ▶	3.59
62	amharique ▶	3.544
63	tagalog ▶	3.54
64	gujarati ▶	3.536
65	somali ▶	3.506
66	kurde du Nord (Turquie) ▶	3.403
67	ouzbèque du Nord ▶	3.365
68	népalais ▶	3.363
69	cinghalais ▶	3.345
70	oriya ▶	3.328
71	breton ▶	3.328
72	turkmène ▶	3.264
73	géorgien ▶	3.263
74	tchouvache ▶	3.261
75	yué ▶	3.26
76	bavarois ▶	3.241
77	panjabi occidental ▶	3.231
78	...	3.227

GURE HERRIAN EGINDAKO INKESTAN JASOTAKOA:

Gure herrira atera ginen herritarrek euskara non kokatzen zuten galdetzera. Orokorrean, herritarrek oso maila txikian kokatzen zuten euskara, batez ere, Euskal Herria oso txikia zelako eta hiztun kopuru txikia daukalako,. 9. postuan zegoela esatean harrিতuta gelditzen ziren denak. Hona hemen jasotako erantzun eta adierazpenak bideoan:



Bideoa ikusi

GURE HIZKUNTZAREN OSASUNA (UNESCO)

UNESCO, hezkuntza, zientzia eta kulturarako **Nazio Batuen** erakundea da. Esan bezala, erakundeak nahi du herrien garapena lortu baliabide natural eta kulturaren bidez. Munduko herriak modernizatu eta aurreratzea da honen xedea, baina kulturaren aniztasuna eta nortasuna galdu gabe. Taula baten bidez, Uneskok arriskuan dauden hizkuntzak sailkatzen ditu, eta hor barruan gure hizkuntza dago. Beraz, esan dezakegu, euskara tamainaren aldetik bikain dagoela, baina osasunaren aldetik, ez hainbeste. Izan ere, hizkuntza zaugarrien barruan kokatzen du: Haur gehienek hitz egiten dute, baina erabilera zenbait eramutara mugatua egon daiteke.

Bizitasun-maila	Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa
Arriskurik gabe	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. Ez da atlas-ean sartzen.
Zaugarria	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabilera zenbait eramutara mugatuta egon daiteke (familia girora, adibidez).
Arriskuan	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
Arrisku nabarmena	Aiton-amonek eta belaunaldi zaharrenetako partaideek bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen balaunaldiekoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
Arrisku larria	Hiztun bakarrik, aitona-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak dira, baina gutzitan eta oso modu partzialean darabilte hizkuntza.
Desagertua	Ez da hiztunik geratzen. Atlasak, 1950. urtetik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.

ONDORIOAK ETA AMAIERA

Euskara uste baino egoera hobean dago tamaina eta beste alderdi batzuei dagokionean: 563 hizkuntzatik 51. postuan dago Calvet barometroan, eta gainera, wikipediaren erabileran 35. postuan dago. Gainera, twitterrek euskara hautatzeko aukera ematen du.

Dena den, osasunari dagokionez, ikusi eta ikasi dugu UNESCOk arriskuan dauden hizkuntzen artean kokatzen duela; egoera zaugarrian, alegia. Beraz, osasunaren aldetik gaizki dago, eta hori izango da hurrengo urteetako erronka. Arrisku egoera horretatik ateratzea, alegia.

